

XIII. TOPAKETAK

2002ko - azaroaren 21-22-23

ELKARJATZE SAIOA

1- TALDEA

Titularitatea:

- Hezkuntza Sailarena izan behar duela argi ikusten da.
- Partzuergoaren formula ez da argi ikusten:
- Ez dira ezagutzen Udalen jarrera zehatzak baina gehienek ez dutela ezer jakin nahi somatzen dugu. Partzuergoaren formula onartu ezkerro ez da eskeintza publikoa bermatzen.
- Egoera honek matrikula baldintzatuko du segun non kokatzen diren ikastetxeak.

Finanziazioa:

- Beste Departamentuetatik dirua jaso behar bada, H. Sailak zuzenean jaso dezala.
- Publikoan % 100
- 0-3 tramoari 3-6 tramoari ematen zaion trataera berbera. finanziaioari dagokionez.

Mapa:

- Publiko / Pribatu kuotak ez dira ondo ikusten. Lehenengo eskeintza publikoa bermatu behar da eta gero pribatuari bide eman.

Proposamenak:

- Mapa egiterakoan ikastetxe guztiak egon behar dute errepresentatuta.
- Eskualde bakoitzean ikastetxe publikoak elkartu eta elkarrekin lan egin eta eskualderako proposamenak egin.

Arazoa: Toki askotan eraikuntzarik ez dagoela edo dagoen lekua egokitu behar da. Nork egin behar du? Udalen borondaterik ez dugu ikusten.

2. TALDEA

Aniztasun handiko taldea: Gehienak 2 urteko geleskin, Gasteizkoak izan ezik, ikastetxeen tipologia ikusita denetatik agertzen da (salbuespen gisa 0-2 tarte eskaintzen duten bi ikastetxe: bata H. Sailak onartuta eta bestea *de aquella manera*) eta berdin Udalei dagokienez.

Finanziazioa:

Bi arlo tratatu dira.

1. Momentu honetan Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak konbokatutako diru laguntzari buruz:

- Zuzendaritza batzuen aldetik inizatibak hartu dira eskaerak egiteko.
- Era desberdinetara soluzionatu du eskola bakoitzak eta diru gutxien dutenak galtzaile irtetzen dira, ez dutelako kontratatutako pertsonarik eta klaustroaren baliabideak erabili dituztenez ezin dute kostu hori sartu.
- BIGEren proposamena: 2 urteko umeekin gastatzen den guztiaren kalkulua egitea eta sartzea aurrekontuan. Behar izan ezker beren CIF- a eta aholkularitza eskeintzen dute.

Kalkulua egiteko kontzeptuak:

- Garraioa
- Jantokia
- Materiala
- Pertsonalgora: gaur egun auxiliarrak eduki ez arren, hainbat eskoletan gertatzen den bezala, kontzeptu hori gastuen artean sartzea aholkatzen da, aurrekontu gisa.

2. Tramoaren finantziario orokorra:

- Publikoan % 100, ez gaur egun planteatzen den moduan baizik eta baldintza onetan, kalkulua errealak eginez.
- Bekak zerbitzuetarako konbokatutako.
- Tramo hau guztiz hezitzailea dela uste dugunez, doatasuna ordutegi osoan
- Eraikuntzetarako dirua bermatu behar da.

Eskola mapa:

- Eskeintza publikoa, jaiotzen den ume kopuruaren % 60 a izatea hitzartu.

Proposamenak:

- Eskola mapa hitzartu arte, finanziaioa gelditzea.
- Oso seriooki eskatzen da eskola mapan parte aktiboa edukitzea. Zonalde guztietan elkarrizketa bultzatzea. Sarean aldetik eztabaida hauek bultzatzea.
- Proposamen partikularra: idatzi bat bidali hedabideetara esanez egoera hobetu ezean zuzendariak dimisioa eskatzeko prest gaudela.

3. TALDEA

Talde anitza: Ikastetxe gehienetan 2 urteko gelak daude. Ez dituztenak, lekua faltagatik da. Kasu baten 0-2 tramoak Guraso Elkartearen bidez eskaintzen dute. Badira batzuk eskaera egin eta ezetza jaso dutenak.

Mapa:

- Partzuergoen formulekin egoera bereziak sortu dira eta eskeintza publikoa pribatuaren eskuetan geratu da.

Proposamenak:

- Eskola publikoari, baimenak lortzeko Pribatuari ematen zaion trataera ematea.
- Ibilbide garbiak markatu behar dira: Otik 12ra, 16ra edo 18ra.
- Tokirik ez dagoen kasuetan H. Sailaren ardura izan beharko luke aurkitzea.
- Akordioak egon ezkerre bai eskolen artean baita udalarekin ere, besterik gabe onarpena ematea.
- 2 urteko gelak onartzea eta demanda guztiak asumitzea.
- Hezkuntza Sailak interlokutore bakar bat izendatzea ikastetxe publikoarekin bozeramaile lana egiteko gai honen inguruan.
- 2003-04 ikasturterako matrikula eperako eskeintza guztiak argi edukitzea.
- 0-3 Dekretuaren aurkako jarrera adierazi presioa egiten; zuzendari guztiek dimisioa aurkeztea proposatzen da.

Titularitatea:

- H. Sailarena eskatzen da.
- Haur eskolak sare publikoan sartzea zuzen zuzenean eta Partzuergoaren formula behin-behinekotzat hartzea, epe

mugatuarekin, "transitorio" bezala definitutako egoera asko, gehiegi luzatzen baitira.

Finantziazioa:

- *Gastua Saila* desberdinen artean konpartitu behar bada, barruan adostua izan dadila.

Talde handiaren erabakia:

Bi talde txikitan, 0-3 dekretuaren aurka azaltzeko presio neurri bezala zuzendarien dimisioa aurkeztea planteatu da.

Batzarrean erabaki da aktan jasotzea egindako proposamena eta Sailburu andreari jakin araztea erabaki hori hartzera iristeko prest gaudela.